

2016-2017 ikasturteko ikastetxeen proiektu deialdiaren ARAUDIA

REGLEMENT Appel à projets 2016-2017 destiné aux établissements scolaires

Article 1 : Objectif de l'Appel à projets

L'Appel à projets destiné aux établissements scolaires primaire et secondaire a pour vocation de soutenir financièrement les projets **entièrement en langue basque** portés par les équipes enseignantes et répondant à l'un des objectifs suivants :

- **valoriser et susciter la pratique de la langue basque (production orale et/ou écrite) par les élèves**, de manière à consolider par l'usage l'apprentissage de la langue ;
- **accompagner les élèves dans la liaison CM2>6^e ou 3^e>2nde** afin d'améliorer la continuité dans l'enseignement bilingue.

Ce règlement définit les modalités de candidature et d'affectation des aides accordées dans le cadre de cet Appel à projets.

Article 2 : Eligibilité des candidats

L'opération est ouverte aux établissements de l'enseignement primaire et secondaire du Pays Basque de France offrant un enseignement bilingue ou immersif.

En pratique, les maîtres d'ouvrage sont :

- l'établissement scolaire ou une association constituée en son sein (coopérative, association de parents d'élèves de l'école) pour l'enseignement public ;
- l'OGEC de l'établissement scolaire, pour l'enseignement catholique ;
- l'association locale pour les ikastola.

Ne peuvent pas être porteurs de projets : les collectivités territoriales, les entités commerciales, les associations qui n'ont aucun lien avec l'établissement scolaire, les associations de parents d'élèves autres que celles de l'école.

Pour bénéficier d'une aide financière ou de son versement, l'opérateur ne devra avoir aucune procédure en cours avec l'Office Public de la Langue Basque, relative à la production de pièces administratives ou à des remboursements dus sur des projets antérieurs.

1. artikulua : Proiektu deialdiaren helburua

Ikastetxeen Proiektu Deialdiaren bidez diruz laguntzen dira, lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan, irakasleek eginikako proiektuak, baldin eta **osoki euskaraz** egiten badira eta ondoko helburuetariko bat betetzen badute :

- **ikasleen euskararen erabilpena sustatzea eta bultzatzea (ahozko eta/edo idatzizko ekoizpena)**, euskararen ikaskuntza azkartzeko ;
- **ikasleak laguntzea 5.urtea>6. edo 3.>2. lotura egitera**, irakaskuntza elebidunean segi dezaten.

Araudi honek finkatzen ditu deialdi honetan parte hartzeko baldintzak eta urratsak, bai eta ere diru laguntzen finkatzeko jokabideak eta moldeak.

2. artikulua : Zein dira kandidatu hautagarriak?

Proiektu deialdia irekia da irakaskuntza elebiduna edo murgiltze sistema proposatzen duten Ipar Euskal Herriko lehen eta bigarren mailako ikastetxe guzietan.

Praktikan, hona zein izaten diren proiektu ekarleak :

- ikastetxea edo ikastetxeeko elkarte bat (kooperatiba, eskolako buraso elkarteak) irakaskuntza publikoarentzat ;
- ikastetxeeko OGEC-a, irakaskuntza giristinokoentzat ;
- ikastolako elkarteak, ikastolentzat.

Hona zein ez diren izaten ahal proiektu ekarleak : tokiko elkargoak, eragile komertzialak, ikastetxeekin loturarik ez duten elkarteak, buraso elkarteak (eskolako buraso elkarteak ez bada).

Diru laguntza baten ukaiteko, ezinbestekoa da proiektu ekarleak ez dezan ukan EEPekin zuritu gabeko aitzineko proiekturik, izan dadin administrazio agiri edo paper batzuen eskasiaz, edo sos turnatze baten beharragatik.

Article 3 : Eligibilité des projets et des financements

Les projets doivent répondre aux critères d'éligibilité suivants :

- faire l'objet d'un dossier de candidature complet adressé dans les délais indiqués (voir art. 4) ;
- se dérouler au cours de l'année scolaire 2016-17 ;
- dans le cas où le même projet aurait été présenté dans le cadre du dispositif de financement de projets culturels de la Direction des services de l'éducation nationale des Pyrénées-Atlantiques, du Conseil général, du Conseil régional ou de la DRAC, avoir reçu un avis favorable de la commission de validation des projets ;
- présenter un budget prévisionnel cohérent et équilibré :
 - autofinancement à hauteur de 20 % minimum ;
 - les dépenses éligibles sont présentées sur le budget prévisionnel du dossier de demande de financement ;
 - dans le cas des séjours avec nuitées, le budget doit faire ressortir le coût des accompagnateurs et ne doit pas dépasser 10% du coût global du projet.

Ne sont pas éligibles :

- les dépenses d'investissement ;
- les dépenses de fonctionnement, d'achat de fournitures scolaires ou de petit équipement (ex : colle, papier, photocopies) ;
- les dépenses liées à l'achat de matériel scolaire (livres, DVD...) ;
- les cadeaux.

Article 4 : Modalités de candidature

Le formulaire de candidature est à télécharger sur le site internet de l'Office Public : www.mintzaira.fr.

Ce document doit être complété dans les deux langues (basque et français), puis **retourné par courrier postal** avec signature et cachet du responsable d'établissement pour le :

Vendredi 14 octobre 2016 dernier délai

Adresse :

Euskararen Erakunde Publikoa - Office public de la langue basque
2, allée des Platanes
Platanoen ibilbidea, 2
64100 Bayonne - Baiona

3. artikulua : Zein dira proiektu eta gastu hautagarriak?

Proiektuak hautagarriak izateko, hona kontutan hartu beharreko irizpideak :

- eskabide txostena behar bezala osatua eta postaz helarazia izan behar da epeak errespetatuz (ikus 4. art.) ;
- proiektua 2016-17 ikasturtean obratu behar da ;
- proiektu bera Pirineo Atlantikoetako hezkunde nazionalako zerbitzuen zuzendaritzak, Kontseilu Nagusiak, Eskualdeko Kontseiluak edo DRACak, antolatu kultura saileko proiektu deialdian aurkeztua bada, proiektuen baieztatze batzordearengandik aldeko iritzia jaso behar izana du ;
- aitzinkontu koherente eta orekatua presentatu :
 - autofinantzaketa %20ekoa gutienez izan behar da ;
 - hautagarri diren gastuak diru-laguntza eskabide txosteneko aitzinkontuan agertzen dira ;
 - gaudiekin diren egonaldientzat, laguntzaileen kostua agerrarazi behar da aitzinkontuan eta ez luke proiektuaren kostu orokorraren %10a gainditu behar.

Hautagarri ez dira ondoko gastuak:

- inbertsio gastuak ;
- funtzionamendu gastuak; eskola hornidurei dagozkien gastuak (adb: kola, papera, fotokopiak,...) ;
- ikasmaterialari dagozkion gastuak (liburuak, DVD);
- opariak.

4. artikulua : Nola egin proiektu bat aurkezteko?

Eskabide txostena EEPren webgunean (www.mintzaira.fr) deskargatu behar da.

Eskabide txostena bi hizkuntzetan (bai euskaraz, bai frantsesez) osatua izan behar da eta ondotik, **postaz helarazia**, ikastetxeko zuzendariaren izenpedurarekin eta zigiluarekin.

Azken epea : 2016ko urriaren 14a, ostiralarekin

Helbidea :

Article 5 : Examen des projets

L'ensemble des dossiers complets fait l'objet d'une instruction par un comité technique associant les services de l'OPLB, du Pôle culture du Département des Pyrénées Atlantiques, du Rectorat de Bordeaux, de la Direction des services de l'éducation nationale des Pyrénées-Atlantiques et des conseillers pédagogiques de chaque filière d'enseignement.

Les dossiers non complets ne seront pas examinés.

Article 6 : Critères d'évaluation pédagogique

Le dossier de candidature doit permettre au comité technique d'évaluer la pertinence des projets présentés sur la base des critères suivants :

- dimension linguistique du projet au regard de la production orale/écrite en langue basque par les élèves, et/ou accompagnement des élèves dans la liaison CM2>6^e ou 3^e>2^{nde} dans l'enseignement bilingue ;
- pertinence et intérêt du projet du point de vue pédagogique ;
- pertinence de l'évaluation envisagée ;
- implication de l'équipe pédagogique dans le projet ;

Chaque projet est apprécié selon les critères d'évaluation définis ci-dessus et classé suivant un système de notation allant de 1 à 4.

L'Appel à projets étant renouvelé chaque année, les projets récurrents doivent être argumentés comme un projet nouveau.

Article 7 : Hauteur de l'aide financière

Les projets retenus sont classés en quatre groupes selon leur coût :

- 1^{er} groupe : coût du projet < 500 €
- 2^e groupe : coût du projet entre 500 € et 1 500 €
- 3^e groupe : coût du projet entre 1 501 € et 3 000 €
- 4^e groupe : coût du projet > 3 000 €

La hauteur de l'aide attribuée est définie selon :

- la note attribuée par le comité technique
- le groupe auquel il appartient

La part de financement diminue avec l'accroissement du coût des projets.

A titre indicatif, le tableau ci-dessous précise la part de financement de l'OPLB en 2015-2016, en fonction du groupe et de la note attribuée.

5. artikulua : Proiektuen hautaketa

Txosten osatu guziak elkarrekin aztertuko ditu batzorde teknikoak, EEPko zerbitzuek, Pirineo Atlantikoetako Departemenduko kultura zerbitzuak, Bordeleko Errektoretzak, Pirineo Atlantikoetako hezkunde nazionalako zerbitzuen zuzendaritzak, eta hiru sareetako aholkulari pedagogikoez osatzen dutena.

Behar bezala osatuak ez diren txostenak ez dira aztertuak izanen.

6. artikulua : Ebaluaketa pedagogiko irizpideak

Eskabide txostenari esker batzorde teknikoak proiektuaren interesa eta egokitasuna ebaluatuko du ondoko irizpideak oinarritzat hartuz :

- proiektuak euskararekin duen lotura, ikasleen ahozko/idatzizko ekoizpen lanaren arabera ikusirik, edo/eta ikasleei ekarri laguntza 5.urtea>6. edo 3.>2. lotura egiteko, irakaskuntza elebidunean segi dezaten ;
- proiektuaren interesa eta egokitasuna pedagogiaren alderditik ;
- aurreikusi ebaluaketaren egokitasuna ;
- irakasle taldearen inplikazioa proiektuan ;

Proiektu bakoitza ebaluatua izanen da gorago zerrendatu irizpideen arabera eta 1etik 4ra joanen den notazio baten bidez sailkatua.

Proiektu deialdia urte guziz zabaldua denez, urte batetik bestera berritzen diren proiektuak, proiektu berri bat balitz bezala argumentatu behar dira.

7. artikulua : Diru laguntzaren heina

Onartutako proiektuak kostuaren arabera lau taldetan banatzen dira :

1. taldea : proiektuaren kostua < 500 €
2. taldea : proiektuaren kostua 500 € - 1 500 €
3. taldea : proiektuaren kostua 1 501 € - 3 000 €
4. taldea : proiektuaren kostua > 3 000 €

Diru laguntzaren heina irizpide hauen arabera definituko da :

- batzorde teknikoak eman nota
- sailkatua izan den taldea

EEP-ren laguntza ttipitzen da proiektuen kostua handitzearekin.

Adierazgarri gisa, behereko taulak 2015-2016ko EEP-ren laguntzaren heina erakusten du, talde eta notaren arabera.

Note attribuée par le CT Batzerde Teknikoaren nota		Coût du projet / Proiektuaren kostua			
		< 500 €	500 - 1 500 €	1 501 - 3 000 €	> 3 000 €
1	pas d'aide laguntzarik ez	-	-	-	-
2	aide de niveau minimal maila ttipiko laguntza	35%	25%	15%	10%
3	aide de niveau moyen maila erdiko laguntza	55%	35%	20%	15%
4	aide de niveau maximum maila handiko laguntza	80%	55%	30%	20%

Attention : ce tableau est seulement un exemple. En effet, ces pourcentages sont redéfinis chaque année selon le nombre total de projets retenus.

Kasu : taula hau adibide bat baizik ez da. Izan ere, ehuneko horiek urte guziz berriz kalkulatuak dira, atxiki proiektu kopuru orokorraren arabera.

Article 8 : Règle relative au cumul avec d'autres aides

La subvention accordée par l'Office Public de la Langue Basque est cumulable avec toute autre aide publique.

8. artikulua: Beste diru laguntzekilako metaketaren araua

EEPk eman diru laguntza beste edozein erakunde publikok eman laguntzarekin metatzen ahal da.

Article 9 : Obligations des bénéficiaires

Les bénéficiaires des aides affectées dans le cadre de cet Appel à projets ont pour obligation de (d') :

- Accepter l'aide affectée. L'aide sera considérée acceptée, si 15 jours après avoir reçu confirmation de cette aide, le chef d'établissement scolaire ne fait pas connaître son refus de la décision.
- Utiliser l'aide dans le respect des objectifs pour lesquels celle-ci est accordée.
- Communiquer le soutien de l'Office Public de la Langue Basque sur tout support de promotion et de communication (affiches, dépliants divers, intervention dans la presse...) concernant les projets et activités aidés.
- Placer ses activités sous sa responsabilité exclusive, en souscrivant tout contrat d'assurance de façon à ce que la responsabilité de l'OPLB ne puisse être engagée.
- Communiquer, dans les meilleurs délais, toute modification d'ordre administratif (n° de tél, ...).

9. artikulua: Hartzedunen betebeharrak

Proiektu deialdi honen bidez diru laguntza izaten dutenek ondoko betebeharrak dituzte :

- Esleitua zaien diru laguntza onartzea. Diru laguntza hori onartuzat kontsideratuko da, ikastetxeko zuzendariak, laguntza horren baieztapena izanetik 15 egun pasa eta, ez badu kontrako iritzirik jakinarazten.
- Diru laguntza baliatzea, finkatuak izan diren helburuak betetzeko.
- Lagundu proiektuaren komunikazio euskarrietan EEPren sustengoa adieraztea (afixetan, esku orrietan, prentsa harremanetan,...).
- Antolatu ekintzak bere erresposabilitate bakarpean jartzea, asurantz bat kontratatuz, EEPren erresposabilitatea ez dadin engaiatua izan.
- Ahal bezain laster abisatu datu aldaketa bat baldin bada (telefono zenbakia, ...).

Article 10 : Attribution de la subvention et versement

Un projet de délibération argumenté est présenté à l'Assemblée générale de l'OPLB fin 2016, qui prend position sur chacune des demandes exprimées, de manière ferme et définitive.

10. artikulua : Diru laguntza galdearen erabakia eta isurketa

Erabaki proposamen argumentatu bat aurkeztua izanen da EEPko Biltzar nagusian (2016ko hondarrean), zeinek erabaki bat hartuko baitu eskaera bakoitzarentzat. Biltzar nagusiaren erabakia behin betikoa izaten da.

Les candidats seront informés des résultats de l'Appel à projets courant janvier 2017.

Le versement de l'aide aura lieu en deux temps :

- 50% de l'aide en début d'année 2017 ;
- le solde après présentation des pièces justificatives, conformément aux dispositions de l'article 11.

Article 11 : Justificatifs à fournir

Le porteur du projet devra fournir **au plus tard pour le 30 juin 2017 :**

- le formulaire bilan dûment complété ;
- toutes les factures, attestations,... concernant le projet.

L'ensemble des pièces justificatives (formulaire bilan et factures) sera examiné par les services de l'OPLB au regard de la conformité et cohérence par rapport au projet et au budget initialement présentés.

Le montant du solde versé sera fixé compte tenu des justificatifs produits.

Si, après examen des justificatifs produits, le montant de l'aide définitive s'avère être inférieur à l'acompte versé, l'opérateur procédera au remboursement à l'OPLB, de tout ou partie du premier versement, et ce dans un délai d'un mois maximum après réception du document adressé par l'OPLB.

Article 12 : Non-respect des obligations

- Seront considérés comme manquement aux clauses établies les cas suivants :
 - l'utilisation totale ou partielle de l'aide allouée pour l'organisation d'activités autres que celles ayant fait l'objet de l'affectation ;
 - dans le cas d'une mise en œuvre partielle du projet, le non-remboursement de la subvention accordée dans le délai imparti ;
 - de manière générale, le non-respect d'une disposition décrite dans le présent document.
- Tout cas de manquement tel que décrit ci-dessus entraînera le remboursement de l'aide versée auprès de l'OPLB.

Article 13 : Règlement des litiges

En cas de litige dans l'application du présent règlement, seul le Tribunal Administratif de Pau sera compétent.

Proiektu deialdiaren erabakiak 2017ko urtarrilean jakinaraziak izanen dira.

Diru-isurketa bi urratsetan egingen da :

- %50a 2017 urtearen hastapenean ;
- azken ordainketa justifikagiriak helarazi ondoan, 11. artikuluan idatzia denari jarraikiz.

11. artikulua : Eman beharreko justifikagiriak

Proiektu ekarleak **berantenez 2017ko ekainaren 30eko** helarazi beharko ditu :

- bilan txostena behar bezala osatua ;
- proiektuari lotu fakturak, egiaztagiriak...

EEPko zerbitzuek justifikagiri guztiak (bilan txostena eta fakturak) aztertuko dituzte zainduz bereziki aitzinetik aurkeztu proiektuarekin eta buxetarekin araberakotasuna eta koherentzia.

Diru laguntzaren azken partea emana izanen da helarazi justifikagiriaren arabera.

Sekulan, justifikagiriak aztertu ondoan, diru laguntzaren kopurua lehen ordainketa baino apalagoa bada, orduan ikastetxeak itzuliko beharko dio EEPri lehen ordainketaren parte bat edo kopuru osoa. Diru hori itzultzeko hilabete bat gehienez izanen du EEPren gutuna errezibitzetik.

12. artikulua: Betebeharrak errespetatzen ez badira

- Ondoko kasuetan kontsideratua izanen da betebeharrak ez direla errespetatuak izan :
 - eman diru laguntza osoki edo zati batean beste aktibitate batzuen antolatzeke baliatua baldin bada ;
 - proiektua partez bakarrik obratua balitz, diru laguntza ez bada EEPri itzulia epeetan ;
 - orokorki, araudi honetan finkatu neurri bat errespetatua ez bada.
- Artikulu honetan zehaztu puntuak ez badira errespetatuak, eragileak diru laguntza itzuli beharko dio EEPri.

13. artikulua: Auzien zuritzea

Hitzarmen hau aplikatzean auzirik agertuz gero, Paueko Administrazio Auzitegia bakarrik izanen da eskuduna.